

4. HASIERAKO AGIRIAREN EDUKIA PRESTATZEKO EGINDAKO AURRETIAZKO LANAK

4.1. Sarrera

2012ko urrian, Herritarrek Getxoko HAPOnen berrikuspenean parte hartzeko programa onartu ondoren, parte hartzeko aldien eta mekanismoen zein berrikuspen-prozeduraren egitura orokorraren berri emateko, honako Hasierako Agiriarekin amaitzen diren lanei ekin zitzairen.

Jarraian, euskarri informatikoan entregatuko den dokumentazioa zerrendatzen eta deskribatzen da, laburki, Hasierako Agiri hau osatzeko eta ingurumen organoari gaur arte sortu diren agiri garrantzitsuenen berri emateko asmoz.

4.2. Eranskinen zerrenda eta eranskin bakoitzerako sarrera

1. ERANSKINA: Aurretiazko Azterlanak

FI.1. LURRALDE-ANTOLAMENDUKO TRESNEN ERAGINAREN ANALISIA, GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK ETA GETXOKO HAPORi ERAGITEN DIOTEN GAINERAKO LURRALDE-LOTURAK

Ingurune fisikoarengan edo kaia, aireportua, igarobidea edo metroa bezalako azpiegiturengan eragina duten udalaz gaindiko plan anitzak aztertzen dira, batzuek besteengan dituzten gainezarpenak, eman daitezkeen hierarkiak edo arauak "bizikidetzarako" duten gaitasuna analizatzeko asmoz.

Dokumentazio hori testu batek eta hogeita zortzi planok osatzen dute.

FI.2. ETXEBIZITZA ERABILERA ANALIZATZEKO METODOA

Indarrean dagoen HAPOnen kudeaketa-maila aztertu ahal izateko, 2001. urtetik 2012. urtera arte emandako eraikuntza-lizentzia guztiak biltzeko lanari ekin zitzaion fase honetan. Honakoa da atalaren osaera: testu bat; HAPOnen bulegoak eskuratutako datuen Excel taula bat; emandako lizentziak aztertzen dituzten zerrendak, eraikuntza-motaren, egikaritze-unitateen barruan sartzen direnaren edo ez direnaren eta beste hainbat irizpideren arabera; analisi-grafikoak; lizentzien laburpen-koadroa; eta emandako lizentzia bakoitzaren kokapen-planoa, eraikuntza-mota eta data zehaztuz.

2. ERANSKINA: Aurrerakinaren Atarikoa

FII.1. GETXOKO HAPOnen BERRIKUSPENAREN INDARRALDIKO ETXEBIZITZA BEHARREN ETA ESKAINTZAREN ANALISIRAKO ETA KALKULURAKO AGIRIA

Arauen arabera Lurraldeko Zati-planak eta plan horren etxebizitzaren kuantifikazio-metodoak ematen dituzten aukerak ezagutzeko, planaren analisia egiten da eta biztanleriaren hainbat bilakaera planteatzen dira, etxebizitza-garapenen aukera zabala ematen duena. Metodo hori, oraindik indarrean ez dagoen Lurralde Antolamenduko Gidalerroen aldaketak proposatzen duen metodoarekin alderatzen da eta, aldi berean, azken horrek, onartua izatekotan, ahalbidetuko lituzkeen aukerak ematen dira. Analisiaren testuarekin batera, egindako kalkuluen Excel taula eta aurrez aipatutako taulako koadro nagusien zenbait pdf jasotzen dira.

FII.2. HIRI-LURZORUAN DAGOEN ETXEBIZITZA-ESKAITZA AZTERTZEN DUEN AGIRIA. LURZORU URBANIZAGARRIA KALKULATZEKO METODOA

FII.2 fasean indarrean dagoen HAPOn kudeaketa aztertze hasitako lanak bukatzeko, programatutako egikaritze-unitateetan gauzatutako kudeaketa-prozesuak aztertu dira. Honakoa da atalaren osaera: testua; egikaritze-unitate bakoitzaren kudeaketaren datu guztiak eta, hala badagokio, ondoriozko partzelen xehetasunak eta horien eraikigarritasuna, egikaritutakoa zein egikaritu gabea, jasotzen dituen Excel taula; taula horren beraren pdf dokumentua; FII-1.1 planoa, egikaritze-unitate bakoitza kokatuz, kudeaketa-maila adierazten duen kolore-kodearekin; eta FII-1.2 planoa, hiri-lurzoruaren barruko espazio libreen sistema orokorren lehenengo proposamenarekin.

FII.3. JARDUERA EKONOMIKOEN ESKAITZARI BURUZKO AGIRIA

Testu horretan, Bilbo Metropolitarrerako Lurraldeko Zati-planak Getxorako markatutako jarduera ekonomikoetarako lurzoru kopuruak deskribatzen ditu, laburki; guztizkoak zein plan orokorraren zortzi urteko indarraldiari dagozkionak.

3. ERANSKINA: HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

Herritarrek parte hartzeko programa entregatzen da, indarrean dagoen 183/2003 dekretu bidez onartutakoa. Programa hori zuzendu egin beharko da Aurrerakinerako, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa arautzen duen 211/2013 dekretu berrira egokituta gera dadin.

4. ERANSKINA: Lantaldearen lanak:

1. deialdia

Aurretiazko Azterlanen idazketa teknikoa amaitu ondoren, Lantaldearekin lanean hasi zen, HAPOn berrikuspenerako partaidetza zuzenerako herritar eta elkarte taldearekin, alegia. Bi saio egin ziren 2013ko udaberrian eta web bidezko foroa saio batetik besterako aldi. Orain entregatzen diren agirietan ikus daitezke eztabaidatutako gaiak eta ondorioak. Prozesuaren memoria, ondorioen txostena eta txostenaren laburpena. Udalaren webgunean dokumentazio osagarria aurki daiteke.

2. deialdia

Aurrerakinaren Atarikoaren idazketa teknikoak amaitu ondoren, lau saio egin ziren 2013-2014ko udazkenean eta neguan, eta web bidezko bi foro ireki ziren saioen arteko aldietan. Orain entregatzen diren agirietan ikus daitezke eztabaidatutako gaiak eta ondorioak. Prozesuaren memoria, ondorioen txostena, txostenaren laburpena eta idazketa-taldeak etxebizitza beharren eta eskaintzaren kuantifikazioari buruz egindako azterlanen ondorioz planteatutako lehenengo aukerak. Udalaren webgunean dokumentazio osagarria aurki daiteke.

5. ERANSKINA: Aholku Batzordearen aktak

Orain arte bost saio egin dira plangintzaren aholku batzordearekin, herritarrek parte hartzeko programak definitzen zuen bezala.

Lehenengo faserako, bi saio egin ziren: bata, idazketa-taldeak eta Lantaldeak egindako lanak azaltzeko eta bestea Aurretzako Azterlanen Faserako iritzia emanez.

Aurrerakinaren Atarikoaren bigarren fasean, hiru saio egin ziren, xehetasun teknikoak hobeto uler zitezen: lehenengoa, idazketa-taldeak egindako agiriak helarazteko eta horiei buruzko informazioa emateko; bigarrena, Lantaldearekin bigarren fasean gauzatutako prozesuaren berri emateko; eta, azkena, ordura arte jarraitutako parte-hartze prozesu osoari eta planteatutako lehenengo aukerei buruzko bere irizpena jasotzeko.

Bost akta entregatu ziren.

6. ERANSKINA: Aurretzako Txostenak eskatzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.1 artikulua araber

2012. urte hasieran, aurretzako txostenak eskatu ziren, lurzoruari buruzko euskal legearen 90. artikulua 1. atalean ezartzen den bezala. Orduan, ingurumenaren, kultura ondarearen eta arriskuen arloetan eskumenak dituzten administrazio ezberdinei egindako eskaera guztiak entregatu ziren, administrazio horiek bidalitako txostenak barne.

7. ERANSKINA :INDARREAN DAGOEN HAPO

Indarrean dagoen plan orokorraren 2013an eguneratutako bertsioa entregatu zen.

8. ERANSKINA: Kultura Ondareari buruzko lanak.

Lanari ekin zionetik, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren mendeko Kultura Ondarearen Zentroarekin harremanetan egon da HAPOren bulegoa; 2012ko neguan egin zen ondarearen zentroak dauzkan lan-planoen lehenengo azterketa eta hainbat akats antzeman ziren mugapenei, helbideei eta beste hainbat alderdiri dagokionez. 2014. urtean, udalerrien laguntza eskatu zen, Zentroaren katalogoa txukuntzeko. Horretarako egindako planoak entregatu ziren. **Eusko**

Jaurlaritzaren arauetara eta lanari dagozkien kategorietan gain, indarreko HAPOk markatzen duen udal zainzapeko eraikinak sartzen dira.

Eranskin horretan jasotzen dira Eusko Jaurlaritzak udalerriko kultura ondarearen babesari buruz emandako dekretuak, aginduak eta ebazpenak ere.

9. ERANSKINA: LKSren agiriak (datu sozio-ekonomikoak).

HAPO prestatzeko, errentari, biztanleriari eta etxebizitzetara buruzko azterlan egin zuen 2010ean Udalak; hemen entregatzen da lan hori. Une honetan, sektore estrategikoak analizatzeko prozesuan murgilduta dago Udala eta eranskin honetan entregatzen da gaur egunera arteko egindako azterlan; Lantaldeari eta Aholku Batzordeari ere aurkeztu zitzaizkien lan hori.